ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2016ko azaroaren 23a, asteazkena • 131 zk.

## III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

# EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUNA SAILA

## ARABAKO LURRALDE ORDEZKARITZA

**Zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita zuhaitzik gabeko zerrenda handitzea, linea honekin lotuta: Amurrio-Iparraldeko Ingurabidea 7. zirkuitua izeneko 13,2 kV-ko erdi-tentsioko aireko linea, Arabako Lurralde Historikoan**

Jendaurrean jartzen da instalazio hau eta, harekin batera, eskatzaileak nahitaez desjabetu beharrekotzat jotzen dituen ondasun eta eskubideen zerrenda banakatu eta zehatza, abenduaren 3ko 282/2002 Dekretuko 10. artikuluan (2002ko abenduaren 23ko EHAA) eta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren 144. artikuluan (2000ko abenduaren 27ko BOE) zehaztutako ondorioetarako, eta honako xedapen hauetan xedatutakoarekin bat: azken testu horretako azken xedapenetatik lehenengoa; Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1957ko apirilaren 26ko Legearen Erregelamenduaren 17. artikulua; Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 55. artikulua; Energia eta Meategien zuzendariaren 2011ko martxoaren 8ko Ebazpena (2011ko maiatzaren 31ko EHAA); eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legea (1998ko martxoaren 27ko EHAA).

Eskatzailea: Iberdrola Distribución Eléctrica, SAU (helbidea: San Adrian etorbidea 46, Bilbao).

Xedea: zuhaitzik gabeko eremu zabalagoa izatea, aipatutako linea elektrikoa eta haren adarrak handik igaro daitezen, Energia eta Meategien zuzendariaren 2011ko martxoaren 8ko Ebazpenean (2011ko maiatzaren 31ko EHAA) xedatutakoa betetzeko; bertan ezartzen baitira zuhaiztietatik aireko lineak pasatzeko preskripzio espezifikoak.

Erreferentzia: RS 1-19137 / AT-H-2016-00010 (18217).

Jarduteearen oinarrizko ezaugarriak: aurkeztutako proiektuan jasotakoak, J. Ignacio Villanueva Ortueta industria-ingeniariak 2016ko irailean sinatutako proiektukoak.

Linearen ibiltartea: Amurrioko udal-mugartea.

Proiektuak eraginpean hartzen dituen ondasun eta eskubideak: iragarki honen eranskinean jasotakoak.

Aurrekontua: 4.902,40 euro.

Onura publikoaren deklarazioa eskatzen da, hain zuzen ere, aipatutako instalazioaren babes-eremuaren zortasuna zalabaltzeko xedeaz.

Eta hori guztia argitara ematen da, batetik, proiektua azter dadin Arabako Lurralde Ordezkaritzan (Samaniego kalea 2, Vitoria-Gasteiz) zein kasuan kasuko udaletxean; eta, bestetik, egoki iritzitako erreklamazioak aurkez daitezen (bina ale) iragarki hau argitaratu eta hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 28a

*Lurralde-ordezkaria*
*SABIN ZUGADI BARRÓN*

*Eranskina*/Anexo

*Eraginpekoen zerrenda*/Relación afectados

| *Finka*/Finca | *Udalerria*/Municipio | Titularra/Titular | *Katastroko datuak*/Datos catastrales | | | AFECCIONES | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| (*Proiektuaren arabera*/Según proyecto) | | *Jabea*/Propietario | *Polig*/Polig. | *Lurzatia*/Parcela | Izaera/Naturaleza Laborantza/ Cultivo | *Euskarri zk.*/Apoyo nº | *Linearen luzera*/ Longitud Tendido (m) | *Eroalearen zabalera*/ Anchura de conduct. (m) | *Egungo zortasunaren azalera*/ Superficie servidumbre actual (m²) | *Zabaldu beharreko zortasunaren azalera* /Superficie ampliación servidumbre (m²) | *Zuhaiztiaren azalera/Superficie arbolado (m²)* eta *zuhaizti-mota*/Tipo |
| 3 | AMURRIO | Mª FRANCISCA ISLA LANDAZURI | 14 | 559 | *Landa-lurra*/Rústica | 9007, 9008, 9009, 9010 | 198,13 | 3 | 1378,77 | 40,00 | *40 urteko pinu 1*/1 pino de 40 años |
| 4 | AMURRIO | AYUNTAMIENTO DE AMURRIO | 14 | 147 | *Hiri-lurra/urbana* | 2103 | 131,90 | 3 | 869,27 | 641,00 | *30 urteko 13 platano eta Ameriketako haritz 1*/1 roble americano y 13 plátanos de 30 años |
| 4bis | AMURRIO | AYUNTAMIENTO DE AMURRIO | 14 | 257 | Hiri-lurra/urbana | 9013, 9014 | 92,11 | 3 | 661,07 | 905,00 | *30 urteko 23 platano*/23 plátanos de 30 años |
| 5 | AMURRIO | AYUNTAMIENTO DE AMURRIO | 14 | 183 | Hiri-lurra/urbana | 2106, 2107, 1801 | 72,60 | 3 | 389,66 | 258,00 | *60 urteko makal 1*/1 chopo de 60 años |
| 7 | AMURRIO | IGNACIO ALDAMA TELLAECHE | 14 | 369 | Landa-lurra/Rústica | 9018 | 37,37 | 3 | 900,54 | 40,00 | *60 urteko haritz 1*/1 roble de 60 años |
| 9 | AMURRIO | J. MANUEL GOYA ASPURU | 11 | 381 | Landa-lurra/Rústica | - | 47,96 | 3 | 335,70 | 40,00 | *50 urteko makal 1*/1 chopo de 50 años |
| 12 | AMURRIO | AYUNTAMIENTO DE AMURRIO | 11 | 387 | Landa-lurra/Rústica | - | 28,74 | 3 | 200,42 | 370,00 | 40 urteko erriberako hostozabalen 80 m² /80 m² frondosas ribera de 40 años |
| 13 | AMURRIO | JOSE ROBREDO SAINZ DE BARANDA | 11 | 397 | Landa-lurra/Rústica | 3403, 3404, 3405 | 123,53 | 3 | 865,17 | 200,00 | 35 urteko altzifre 1, fruta-arbola 1 eta mizpirondo 1; 50 urteko haritz 1 eta 60 urteko intxaurrondo 1/1 frutal, 1 níspero y 1 ciprés de 35 años, 1 roble de 50 años y 1 nogal de 60 años |
| 14 | AMURRIO | JOSE ROBREDO SAINZ DE BARANDA | 11 | 398 | Landa-lurra/Rústica | - | 12,85 | 3 | 89,93 | 40,00 | *60 urteko haritz 1*/1 roble de 60 años |



Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, OU=ZIURTAGIRI ONARTUA - CERTIFICADO RECONOCIDO, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 108817
Fecha de firma: 2016.11.23 06:38:51 Z